



IKASLEEN TXOKOA 91. ZENBAKIA

Martuteneko Arantzazuko Ama BHI

Egileak:

Behean, ezkerretik hasita: 2.DBHko Claudia Martin, Nerea Garcia, Irune Vicente, Nerea Gomez; eta 3.DBHko Markel Artola eta Xabi Intxauspe.

Goian ezkerretik hasita: 3.DBHko Maren Etxeberria eta Irune Pascual; eta 4.DBHko Eneritz Alejos, Amaia Antunes, Irati Oscoz, Endika Barral eta Erika Zamakola



Londres: nazkagarria, nagia, ziztrina



Abian

Azkenean! 1978ko uda zen, Franco dagoeneko hila eta trantsizioa bukatzeaz zegoen. Askatasuna sentitzen zen kaleetan zehar, dena lortu izan bagenu bezala. Hogei urte nituen, eta egia esanda, Euskal Herriko egoera ekonomikoa ez zen apartekoa. Beno, ez nire aberrian, ez inon ere. Nire senideen eta gurasoen beharra ikusita, ez nuen beste erremediorik, atzerrira joan behar nuen lan bila. Eta noski, argi zegoen beste lurralde batera iristea zaila izango zela; ez nuen ia eskudirurik, ez tiketik, ezta helmugarik ere. Beno, erokeria eman dezake, baina Londrese-ra joateko txartel bat lapurtzea lortu nuen aireportuan. Ez nago ekintza hortaz oso harro, baina ez zegoen beste irtenbiderik. Gizona gizajo bat zen eta ez zen konturatu ere egin.

Ordu batzuk geroago hantxe nengoen, Londresen! Zorte handia izan nuen, izan ere, ingelesa nahiko ondo hitz egiten nuen, ama irlandarra da eta. Ikus daitekeen bezala, ez nuen arazorik izan Londrese-ra iristeko, baina zer egin behar nuen han? Guztiz galduta sentitzen nintzen, abentura bat biziko nuen arren.

Galduta

Argi nuen zer egin behar nuen: lo egiteko leku bat bilatu, janaria erosi eta lana lortu. Londre-

seko auzo arrotz batean aurkitu nuen hotel merke bat, beraz, denbora batez hantxe geratuko nintzen. Camden Lock izena zuen hotelak, eta, hain zuzen ere, auzo arrotz horrek Camden Town izena zuen. Ez nuen inoiz horrelako lekurik ikusi, eraikin guztiak era bitxian apainduta zeuden eta kaleko giroak ez zuen Tolosan ikus nezakeen giroarekin zerikusirik. Liluraturik geratu nintzen. Denda txikitxo batean bokata bat erosi, eta hau bukatu orduko, hotelera joan nintzen, hurrengo egunean lan bila joan behar nuela jakinda.

Gau horretan ez nuen lo askorik egin, ez nekielako zer gertatuko zen nire bizitzan, eta horrez gain, nire senideak ez ikusteak kezkatzen ninduen. Kalera atera nintzen eta lainotuta zegoen zerua, nahiko tristea zen hori, baina esan beharra dago Londres ia egunero horrela dela, nahiz eta uda izan. Konturatu nintzen Camden Town auzoa dendaz josita zegoela, beraz, lana aurkitzea ez zen hain zaila izan. Dendaz denda joan ondoren, Quarter denda kontratatu ninduten, saltzaile bezala. Denda xelebrea zen, ingurukoak bezala. Apainduraz beteta zegoen: posterrak, estatuak, maskarak, txapak... denetik. Noski, musika ez zen falta denda. Egun hartatik aurrera, ni bakarrik egongo nintzen denda lanean.

Zergatik?

Hurrengo egunean goizeko seietan esnatu nintzen, dena prestatzeaz gain, denda zazpi eta erdietan ireki behar nuelako. Goiza lasaia izan zen, ez zen jende asko etorri dendara: lehenengo egun bikaina izaten ari zen. Ordu batean itxi nuen denda bazkaltzera joateko. Kasualitatez, lanlekuaren ondoan KFC bat zegoen eta hortxe bazkaltzea pentsatu nuen, oilaskoak zorutzen bainau. Ordu bi eta erdiak aldera denda berriro ireki nuen. Bezero bat sartu zen eta itxura oso arraroa zuen: ilea tente, tindatuta, eta arropa puskatu eta zaharrak zeramatzen. Begira gelditu nintzaion lekuz kanpo zegoen zerbait egingo zuen susmoa nuelako. Beste bezero batek zerbait galdetu zidan eta nik kasu egin nion. Tarte horretan, tipo arrotzak zerbait lapurtu zuela iruditu zitzaidan, berokian zerbait sartzen zuela ikusi nuelako. Hartutakoa bere tokian uzteko oihu egin nion eta alde egin zuen. Atzetik jarraitu nion eta gelditzeko garrasi egin. Kale estu batean sartu zen eta bertan harrapatzea lortu nuen. Lapurtutakoa bueltatzera behartu nuen, bestela polizia deituko niola esanez. Eskuak altxatzen zizkidan bitartean, argi utzi zidan hark ez zuela ezer lapurtu, eta halaxe izan zen. Egia esan zidala ikusita, hamaika aldiz barkamena eskatu nion, etengabe; eskerrak arazorik gabe onartu zuen. "Zergatik atera zara korrika, orduan?" galdetu nion, eta izutu egin zela esan zidan, dagoeneko polizia-ekin arazo asko baitzituen. Azkenean, denda ixtean zerbait hartzera gonbidatu nuen, modu hartan janzteko eta jokatzeko arazoia ezagutzeko jakin-mina asetzeko. Ez zuen arazorik izan eta nire gonbidapena onartu zuen.

Mutilak Camden Towneko

taberna bat gomendatu zidan eta bi zerbeza eskatu genituen. Tom deitzen zela esan zidan eta horrelakoa izatera zerk eraman zuen galdetzeko adorea izan nuen. Punk-a zela esan zidan. "Zer arraio da hori?", galdetu nion. Lasai asko azaldu zidan. Punka protestan oinarritzen zen bereziki. Gizarte hipokritaz, tradizionalistaz, kristau moraltasunaz eta faltsuaz nazkatuta zeuden eta haien gurasoen pentsamolde zentzugabea apurtu nahi zuten. Kontrakultura nagusia ziren momentu hartan Ingalaterran eta nabarmenak izateko janzkera hori zeramaten, musika jakin bat egiten zuten eta gainera, liskar asko edukitzen dituzte poliziarekin, apropos.

Elkarrizketak aurrera egin zuen eta azkenean, hurrengo astean ospatuko zen kontzertu batera gonbidatu ninduen. Punk talde bat zela komentatu zidan, lehenengoetakoa, Sex Pistols izena zuena. Pentsatu gabe baietz esan nion, kontu horretan sakondu nahi nuelako. Ordua eta lekua eman, nola izango zen azaldu eta haren lagunekin joango zela esan zidan. Ezin hobe!

God Save The Queen

Kontzertuaren eguna iritsi zen. Kontzertu klandestino bat zenez, Londresko kanpoaldean antolatu zen. Tomek esandako ordurako iritsi nintzen. Txundituta geratu nintzen kontzertuaren giroarekin: ez zegoen jendez gainezka, baina nahikoak ziren giro aparta izateko. Tomen antzera janzten ziren, eta neska eta mutil elkartu ziren. Nire itxura guztiz ezberdina izan arren, ez nintzen lekuz kanpo sentitu. Ez nuen sekula horrelako kontzerturik ikusi Euskal Herrian!

"God Save The Queen" abes-
tiak bereziki arreta deitu zidan.

Esan daiteke identifikatuta sentitzen nintzela. Abestia Ingalaterrako monarkiaren aurkakoa da eta mezua modu ironikoan transmititzen du askotan, adibidez, "God save the queen. We mean it man. We love our queen" esanez. Horrez gain, taldeari zentzugabea iruditzen zaio monarkia, azken honek ekintza txarrak legitimotzat hartzen dituelako eta azken finean, gizartea usteltzen duelako. Hau entzunda, Francoren kontuarekin erlazioz nuen, euskaldunok ere jazarpena jasan izan eta jasaten baitugu.

Nire bizitzako kontzerturik onena izan zen, paregabea. Guztiz eskertu nien Tomi eta haren lagunei esperientzia hau; nire pentsamoldea erabat aldatu zuen.

Punka naiz

Punkarekin geroz eta harreman estuagoa izaten hasi nintzen, eta egia esanda, guztiz harrapatu ninduen bere filosofiak. Lagunek ulertarazi zidaten gizartea ustelduta dagoela eta guztiz hipokrita dela. Horrexegatik, tradizio zentzugabeen kontra jo behar genuen. Koadrilak lagundu zidan nire janzkera aldatzen, eta onartu behar dut oso erraza izan zela, ia guztia zakarretatik lortutako trapeak zirelako, horrek punk filosofiarekin bat egiten baitu. Inoiz baino erosoago nengoen, gure ekintzen bitartez pentsamolde tradizionalistaren aurka egiten ari ginela jakinda. Etxeak okupatzen genituen, kontzertu klandestinoak antolatu, poliziarekin liskarretan ibili... Jendea gure aurka zegoen... Eta hala ere, guri bost axola, gure eginbeharra zela sentitzen genuelako. Esaterako, guardia aldetak aprobetxatzen genituen hauek zirikatze-ko, Tower Bridgen ibiltzen ginen txorakeriak egiten, errebelazio moduan... denetik.





Zeintzuk dira nazkagarriak, nagia eta ziztrinak, orduan?

Eta Euskal Herrian, zer?

Azaroa, negua etortzeaz zegoen eta ia bost hilabete neraman Ingalaterran. Zoritxarrez, Euskal Herrira buelta egin behar nuen, neguak Euskal Herrian gogorak direlako, familia lagundu behar nuelako eta aurreztu behar nuen aurreztu nuelako.

Euskal Herrira iritsi nintze-

nean, konturatu nintzen ez zegoela horrelako mugimendurik eta horrek larritzen ninduen. Ni punka iritsi nintzen Euskal Herrira, eta ez nion izateko modu horri utzi nahi. Guztiz kontra: pentsamolde hau zabaldu nahi nuen, iraultzarako gogoia sustatuz gazteen artean. Lehen euskal talde punka osatzea lortu nuen, eta nire helburua bete nuen. Orain punka inoiz baino biziago dago hemen, eta oso

harro nago honetaz. Londresen bizi nuen esperientzia ahaztezinak izan zen eta nik sentitu nuen beste batzuei sentiaraztea lortu izanak guztiz pozten nau. PUNK'S NOT DEAD!

Egileak:

Eneritz Alejos, Amaia Antunes, Endika Barral eta Irati Oscoz, Arantzazuko Ama.

«Berriz jaioko banintz, berriz ere futbolaria izatea gustatuko litzaidake»

XABIER PRIETO ARGARATE. Realeko futbolari ohia. 2006-07 denboraldian Real Sociadako goleatzaile nagusia izan zen Xabier Prieto. Erdilari moduan aritzen zen, eskuin aldetik zein puntaerdi gisa.

Kaixo Xabier, zer moduz?

X.P. Kaixo, oso ondo nago, lasai-lasai etxean, orain gure txikiak iritsiko dira eta zain, oso gustura.

Zer izan nahi zenuen txikitan?

X.P. Txikitan futbolaria izan nahi nuen, oso argi neukan; kirol guztiak nituen gustuko, baina uste dut txikitatik oso argi neukala, ez profesionalki, baina futbolaria izan nahi nuela, oso zaila izango zela ere banekien, baina zorionez lortu nuen, eta oso pozik nago.

Txikia zinenean futbolaria izango zinela pentsatzen zenuen?

X.P. Bada, ez nuen pentsatzen futbolaria izango nintzela, izan

ere, nik 16 urte arte Santo Tomas lizeoan jokatzen nuen, eta nahiz eta proba dezente egin Realarekin, azkeneko momentutan ez ninduten fitxatzen, baina gero, zorionez, Realak fitxatu egin ninduen, gero Santera joan nintzen eta ondoren aurreneko taldera. Horiek izan dira nire pausoak. Baina ez, txikia nintzenez nire ametsa zen, baina ez nuen pentsatzen lortuko nuela.

Noiz hasi zinen futboleko jolasten?

X.P. Txikia nintzenetik jolastendut futboleko, txikitan hasi nintzen. Hasieran Kontxako hondartzan anaiarekin, gero Santo Tomas lizeoan lagunekin 16 urte

arte, eta gero, Realak fitxatu ninduen, urte batez Hernanira joan nintzen utzita, eta gero Realara.

Zein izan zen zure partida gustukoena? Eta gol gustukoena?

X.P. Ez da erraza nire partidarik gustukoena aukeratzea, baina behar bada bigarren mailan ginenean eta lortu genuenean igoera, Celtaren aurkako partida. Agian partida horrekin geratuko nintzateke, eta gol gustukoena partida horretan sartu nuen gola, penaltiz izan zen, hasieran bota nuen eta gero arbitroak errepikatzeke agindu zidan eta berriz ere sartu nuen, eta gero, ospakizunean, txorkatila bihurritu nuen, baina uste dut merezi izan zuela.

Zergatik utzi zenuen futbola 2018an?

X.P. Futbola utzi nuen ulertzen nuelako nire momentua iritsi zela, izan ere, 34-35 urte egiteko



neuzkan, oso garai politak bizi izan nituen futbolaria izanez, baina beno beste gauza batzuk egiteko gogoia ere baneukan, eta gainera, fisikoa pixkanaka-pixkanaka behera doa, eta nik nabaritzen nuen nire momentua zela, gazte jendeak hartu behar zuten erreleboa eta pakean joan nintzen.

Gustatuko al litzazuke atzera egin eta futboleko profesionalki jolastea berriz?

X.P. Bai, berriz ere jaioko ba-

nintz, seguraski gustatuko litzaidake berriz ere futbolaria izatea, oso momentu politak bizi izan baititut, eta oso polita da hainbeste gustatzen zaizun zerbaitean ibiltzea profesionalki. Beraz bai, berriz ere atzera egin behar izango banu, bai, gustatuko litzaidake profesionalki futboleko jolastea.

Egileak:

Nerea Garcia, Nerea Gomez, Claudia Martin eta Irune Vicente (Arantzazuko Ama BHI

Askatasunari uko?

Hasteko, morala eta etikari buruz hitz egingo dut.

Etikak, filosofiaren adarrak, morala aztertzen du, hau da, gizakiok zer hartzen dugun ongitzat eta zer gaizkitzat. Horrez gain, arau hauek nondik datozen ere jorrotzen du: zer gertatzen den arau hauek urratzen ditugunean, zer egin behar dugun zorientsu bizitzeko... Etika izaki moralak garelako existitzen da, askatasuna dugulako erabakiak hartzeko eta ez dugulako senaren bidez funtzionatzen.

Hala ere, bada jendea askatasunari beldur diona eta nahiago duena besteen irizpideei jarraitzea. Nire ustez, izaki moralak

garen arren, oso sozialak gara eta gizartean onartuak sentitzeko behar handia dugu. Hori dela eta, ikaratuta bizi gara, besteei aurka eginez gero, baka-rik geldituko garela pentsatuz. Askatasunari beldurra izateko beste arrazoi bat izan liteke guk zerbait erabakitzen dugunean, erantzukizuna gurea dela eta ez zaigula gustatzen oker egotea; azken finean, harroegiak gara arrazoi osoa ez dugula onartzeko. Bai ote?

Askatasunari beldurra izateari uztea, eta gure ideiak, pentsamenduak zein iritziak azal-

tzea, denontzat onuragarria izan daiteke. Izan ere, bi pertsonak kontrako pentsamenduak dituztenean eta beren ikuspuntua argudioen bidez partekatzen dutenean, askotan konturatzen dira bi iritziak ontzat har daitezkeela eta biek dutela arrazoia punturen batean edo bestean. Horrela, biek ikasten dute eta ikuspuntu zabalagoa lortzen dute. Horrelako egoerak sarriago gertatuko balira, gatazka ugari ebatziko lirakeke. Baina guk, horren orde, askatasunari uko egiten diogu eta aukera paregabe hori alde batera uzten dugu.

Jarraitzeko, kontzientzia moralaren garapena aipatu nahiko nuke. Klasean ikasi dugu hiru fasetan banatzen dela: aurre-kontzientzionala, kontzientzionala eta postkontzientzionala. Laburbilduz, lehenengo fasean, besteek inposatutako arauak ja-

rraitzen ditugu gure onurarako eta ez dugu pentsatzen ondo ala gaizki dauden ere. Bigarrenean, berriz, gure gizarteko arauak jarraitzen ditugu, uste dugulako horiek izan behar dutela zuzenak eta ez ditugu zalantzan ipintzen. Azkenekoan, berriz, gizarteko arauak buruz hausnartu eta gero, gure iritzi propioa eraikitzen dugu eta arau moral batzuk sortzen ditugu.

Nire ikuspuntutik, jende oso gutxi lortzen du azkeneko fasea iristea. Jende gehiena bigarren fasean dagoela pentsatzen dut, izan ere, asko kostatzen zaigu gure inguruko arau moralak zalantzan jartzea. Zergatik? Lehen aipatu dudan arrazoi berarengatik, hau da, izaki sozialak garelako.

Hala ere, gaur egungo gizartean errazagoa da hirugarren fasea iristea, bizi garen mun-

duan, teknologiari esker, beti aurki genezakeelako norbait gure iritzia partekatzen duena eta horrek ausardia ematen digu. Dena den, hori aho biko ezpata izan daiteke: gerta liteke gure iritzi bereko jendea alboan hartu eta gure ikuspuntura baino ez mugatzea, ez dugulako besteen iritzia entzuteko beharra sentitzen. Dena den, etengabe ari gara morala garatzen, eta horretarako, uste dut beharrezkoa dela gure pentsamendu propioak epaitzea. Hain zuzen ere, bide horretan, besteen ideiak aditzea garrantzitsua da. Beraz, adi entzun!

Egilea: Erika Zamakola, 4B, Arantzazuko Ama.

LGTBI-k bere heriotza hilketara soziala dela uste du

2020ko urriaren 1ean, 17 urteko Nerea Arceo Barreiro gazte bisexualak bere buruaz beste egin zuen, "ezin zuelako hainbeste gorroto jasan".

Bullying-a jasan zuen Rois eta Bertamirán herrietako institutu-tuetan. Horrekin batera, Sare Sozialetan ere gorroto eta kritika asko jasotzen zituen. Mezuak hain ziren maltzurak, gaiztoak eta gorrotagarriak, zein bere buruaz beste egiteko beharra sentitu zuen.

Honen guztiaren ondorioz, depresio handi batean murgil-

du zen eta hainbat alditan bere buruaz beste egiten saiatu zen. Behin eta berriz saiatu arren, ez zuen hasieran lortu.

LGTBI kolektiboak Sare Sozialetan salatu dute gertaera hau. Hortik abiatuta, deialdi bat antolatu dute, jende guztiak jakin dezan errua ez zutela bakarrik iraintzen zutenek, baizik eta baita gertatutakoa ikusi eta

beste alde batera begiratu zutenek ere, hau da, babestu edo langundu ez zutenek.

Gainera, gogorarazten dute adin horretan oso zaila dela eraso horiei aurrera egitea eta irainei kasurik ez egitea. Bestalde, esan dute herri txiki batean gertatzen bada, non denek elkar ezagutzen duten, oso zaila dela norbait defendatzea, zure errepuzazioa okertu gabe.

Nerearen familiak errespetua eta diskrezioa eskatu dute besteen aurrean. Familiaren ustez, orain ez da erruduna

aurkitzeko momentua, baizik eta familia lasai uztekoa eta denek bere momentu txarra lasai pasatzekoa. Horregatik, familiak momentuz epaiketarik ez antolatzea erabaki du. Hala ere, momentu mingarri hauen ondoren, bai egoera salatzeko asmoa dutela, beraien alabaren hiltzaileek merezi duten zigorra jaso dezaten.

Egileak: Iruñe Pascual eta Maren Etxeberria (Arantzazuko Ama BHI 3.DBH)



Morata: «Nire ametsetako kluba bartzelona izan da txikitatik»

Sare Sozialak lehertzeaz daude Moratak twitteren komentatu zuenaren ondoren.

Gaur egun, Sare Sozialak leher-tzeko zorian daude, izan ere, eztabaida handia sortu da. Real Madril eta Atletico de Madrilgo jokalaririk ohiak eztabaida handia sortu du Twitterren ipinitako argitarapen zuzen eta gogor horrekin. Polemika handia sortu zen, Bartzelonaren aurka jokatu eta haien garaipenaren ondoren interneten igotakoarekin. Igo zituen mezuak, Bartzelonaren aldekoak ziren beraien garaipena ospatu nahian. Ordutik, kritika eta iseka mordoa jaso ditu Sare Sozialetan. Honen guztiaren ondoren, Cope kateak, jokalaria elkarriketatu zuen. Elkarriket-

tan, gai hau sakondu zuten, Morataren sekretua airean utziz. Polemika eta eztabaida hau, dudarik gabe, Morataren erruz sortu da, izan ere, gazteak beti esan izan du bere ametsetako kluba Real Madril dela, bere txikitako ametsa.

Honen guztiaren ondoren, Moratak isiltasuna hautsi du gai honi buruz. Atletico de Madrilgo zaleek Morata, bai burla eginez eta bai mehatxuka, astindu dute Sare Sozialetan. Bere talde-kideak, Cristiano Ronaldok, esan du berari bost axola zaiola Moratak esandakoa, bakoitzak bere gustuak dituela eta

berak bere laguna izaten jarraituko duela esandako esan badu ere. Aldiz, Sami Khedirak, entrenamenduan, aurka egin dio eta jokalariek gelditu beharra ikusi dute, horrek ondorioak ekar ditzakeelako. Bartzelonako zaleek barrezka hartu dute Moratak esandakoa. Moratak aipatu du bere idoloa txiki-txikitatik Etoo izan zela eta beti bere pausoak jarraitu dituela. Moratak polemika gehiago sartzeko esan du Madrilaren aurka sartzen badu ixiltzera bidaliko dituela, Zinedine pikutara bidaliko duela. Morata tentazioan erori da eta Real Madrilgo presidentearen aurka ere egin du. Real Madrilgo zaleak, txundituta geratu dira eta traizionatuta. Moratak esan du Bartzelonari gola sar-



tzen badio ez duela ospatuko.

Guztiok dakigunez, Morata-ri, asko gustatzen zaio polemika eta eztabaida sortzea.

Egileak: Markel Artola eta Xabier Intxauspe (Arantzazuko Ama BHI 3.DBH)

